




Erabili behar dut marratxoa
kanpo-izen bereziei atzizkia
lotzeko?





Nola idatzi behar ditut esaldi hauek?

- “Objektuek **Newtonen** legeak betetzen dituzte”


ala

- “Objektuek **Newton-en** legeak betetzen dituzte”?

- “**Hawkeyek**, **Uncasek** eta **Chigachgookek** mendian gora egiten dute korrika, Alice salbatzeko”

ala

- “**Hawkeye-k**, **Uncas-ek** eta **Chigachgook-ek** mendian gora egiten dute korrika, Alice salbatzeko”?





Ezer baino lehen, esan behar da kanpo-izen bereziaren eta atzizkiaren artean marratxoa tartekatzea ez dela arau bat, gomendio bat baizik; estilo-gomendio bat, hain zuzen.

Marratxoaren bidez markatzen du testugileak non bukatzen den izena eta non hasten den atzizkia. Eta bereizte hori, batzuetan —kanpo-izen berezia ezezaguna delarik, batik bat—, oso lagungarria izaten zaio testuaren irakurleari (adibidez, izen arrotz hori bestelako atzizki batekin erabili behar badu).

Demagun, esaterako, honako perpauk hau dugula:

- Frassek eta haren kideek lortutako errendimendua % 35era igo zen.

—Zer izen dugu perpauk horretan: **Frasse** ala **Frass**?

—Izen hori bestelako atzizki batekin jokatu behar badugu, nola deklinatu behar dugu: **Frasseri** ala **Frassi**, **Frasseren** ala **Frassen**?

Horrelako izenak jokatzearan marratxoa erabiliz gero, duda hori saihestu egiten da, marratxoak banandu eta zedarritzen baititu bi elementuak (izen berezia eta atzizkia).

- Frass-ek eta haren kideek lortutako errendimendua % 35era igo zen.

Hauxe dio Euskaltzaindiak izen berezietan marratxoa erabiltzeari buruz:

"Pertsona edo toki izen propioetan. Arrotzak, ezezagunak edo guti ezagunak direnean bakarrik. Adibidez: <<Scott-ek>>, <<Bremen-en>>, <<Hitler-ek>>. Gainerakoetan, deus ez: <<Orion>>, <<Bolibarren>>, <<Gernikatik>>, <<Parisen>>; <<Mogelek>>, <<Axularren irakurria>>."



[EUSKALTZAINDIA: "Puntuazio marka batzuk non, noiz eta nola jarri", *Euskera* XVI, (1971) 150-153]

eima-ren *Ortotipografia* liburuan (31-32. orrialdeak), nahasgarriak gerta daitezkeen erdal izen bereziak jokatzeko moduari dagokionez, bi jokabide aipatzen dira.



http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-573/es/contenidos/informacion/dih/es_5490/adjuntos/estilo_liburua/ortotipografia.pdf



a) Aposizioa baliatzea izenaren lehen aipamenean:

- Lon Chaney aktoreari...
- Stephen Hawking fisikariak...
- Everest mendiko...



Eta izenaren geroko agerraldietan, zuzenean eranstea atzizkia izenari:

- Lon Chaneyri...
- Stephen Hawkingek...
- Everesteko...



b) Marratxoa tartekatzea izenaren lehen aipamenean:

- Lon Chaney-ri...
- Stephen Hawking-ek...
- Everest-etik...



Eta izenaren geroko agerraldietan, zuzenean eranstea atzizkia izenari:

- Lon Chaneyri...
- Stephen Hawkingek...
- Everestetik...

OHARRA

(a)

Erre gogorra (RR) hartzen duten kanpo-izenak jokatzean, izenaren eta atzizkiaren artean marratxoa tartekatuz gero, R bat baino ez da idatzi behar; alegia, Silver**rek** baina Silver-**ek**, eta ez *Silver-**rek**, edo *Silver**r-ek**

Keler	Keler- i	Keler- ek	Keler- entzat
Miler	Miler- i	Miler- ek	Miler- entzat
Schiller	Schiller- i	Schiller- ek	Schiller- entzat

Baina izena erre gogorarekin bukatzen bada:

Carr	Carr- ek	Carr- entzat
Barr	Barr- ek	Barr- entzat

OHARRA

(b)

Euskal izenak jokatzean, ez da marratxorik tartekatu behar. Izen batzuk, hala ere, testuinguruaren arabera, nahasgarriak izan daitezke:

Jone/Jon, Joane/Joan, Julene/Julen, Lukene/Luken, Markele/Markel, Mikele/Mikel...

Izan ere, testuinguruak behar besteko informaziorik eman ezean, baliteke horrelako emakumezkoen izenak eta gizonezkoen izenak ezin bereiztea. Halakoetan, egokia da marratxoa erabiltzea

Jone-**k** idatzi du. / Jon-**ek** idatzi du.

Baina gaizki-ulerturako arriskurik ez badago, ez da marratxorik erabili behar:

Jone**ren** liburua / Jon**en** liburua

Mikeler**entzako** liburua / Mikel**entzako** liburua